



Balioa izango duen diskurtso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.
El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.

BAKARTXO TEJERIA
Azkoitia, 2024ko apirilaren 6a

Eguerdi on:

Hauteskunde-kanpainan gaude eta botoa eskatzera gatoz. Eskaera hori datu eta argudioekin egin ahal izateko, iraganari, orainari eta etorkizunari begiratzea ona da. PNVren ibilbidea ezaguna da.

Iraganaean hartu ditugun erabaki estrategikoetan asmatu egin dugu.

- Asmatu genuen soilik bide politiko eta demokratikoen aldeko apustua egin genuenean, herri honetan indarkeriak lekurik ez zuela esan eta borrokatu genuenean.
- Asmatu genuen Euskadiren Eskubide Historikoak Konstituzioan aitortzea lortu genuenean.
- Asmatu egin genuen Gernikako Estatutua bultzatu genuenean, herria zutik jartzeko, egituratzeko eta instituzionalizatzeko aukera eman baitzigun.
- Eta argi izan genuen Kontzertu Ekonomikoa burujabetzarako oinarrizko tresna zela eta dela.

Ondoren, Osakidetza, hezkuntza-sistema, gizarte-ongizateko sistema, Ertzaintza, euskararen berreskurapena eta normalizazioa, Emakunde... martxan jarri genituen. Aitzindariak izan gara Diru-sarrerak bermatzeko errenta onartzean, baita Berdintasun Legea onartzean ere. Beste batzuek aldiz, beti ezezkoan. Eta orain, beraien iragana isilean, ezkutuan eta ahaztu nahirik. Bati entzun nion bezala, "el pasado pasado es, pero el pasado existe".

Orainari dagokionez, herri modernoa gara, zerbitzu publiko sendoak dituen. Arazoak izan arren, aurrera egiten duen herria gara. Herritarren % 73ak Eusko Jaurlaritzarengan konfiantza du. Europa osoan konfiantzarik handiena sortzen duen gobernu da Jaurlaritza.

Eta PNV da Jaurlaritzaren buru. Beraz, zerbaitetan eragina izan du, Euzko Alderdi Jeltzaleak, eta ez beste batek, herri hau gidatu izanak. Hauteskunde hauetan ez dago jokoan ziklo bat amaitu eta beste bati hasiera ematen zaion. Hauteskunde hauetan jokoan dagoena da herri hau datozen urteetan nork gobernatuko duen eta zer politika bultzatuko diren. Eta bi aukera daude. Ez dago besterik. Bata ala bestea!

PNVk erakutsi du gai dela euskaldunen beharrak identifikatzeko eta horiei zuzen erantzuteko. Zer frogatu du EH Bilduk? Zer egiten zuen ezker abertzaleak guk eraikitzen genuen bitartean? Desegin eta aurka jo. Eta orain haien oinordekoek sinetsarazi nahi digute guk baino hobeto kudeatuko dituztela hainbeste denboran, hainbeste borrokatu dituzten erakunde horiek. Horretarako katastrofismoa, populismoa eta demagogia dira erabiltzen dituzten tresnak.

Gure tresnak, aldiz: Katastrofismoaren aurrean, EGIA. Populismoaren aurrean, DEMOKRAZIA. Demagogiaren aurrean, LORTUTAKO EMAITZAK. Ibilbide luzeko alderdia gara eta etorkizunera ilusioz eta indarberrituta aurkezten gara hauteskunde hauetan. Ekimen berriekin gatoz. Aukerak eta irtenbide bideragarriak eta eraginkorrak eskaintzen ditugu. 575 proposamen zehatz baino

gehiago jasotzen ditu gure programak. Imanolek asteak daramatza arlo ekonomiko, sanitario, zaintza, etxebizitza, segurtasun, berdintasun eta autogobernu arloetako ekimen horiek azaltzen. Ez dira orokorkeriak, benetako ekimenak dira. Benetako proposamenak. Horretan ere, beste alderdi batzuetatik bereizten gara.

Etorkizuna irabaztea dugu helburu. Gure geroaren jabe izan nahi dugu. Horretarako herri gisa erabakitzekeo eskubidea onar dezaten lanean jarraituko dugu.

Baina hori guztia egi bihurtzeko botoak behar ditugu. Boto guztiak behar ditugu. Ez fidatu. Sinetsarazi nahi digute PNVk bai ala bai gobernatzen jarraituko duela. Lokartu nahi gaituzte. Batzuk arrazoi batzuetatik eta beste batzuk beste batzuetatik. Baina egia den gauza bakarra da PNVk gobernatzen jarraitzeko, PNVri bozkatu behar zaiola. Eta 15 egun hauetan hori azaldu behar diegu zalantzan egon daitezkeen gure inguruko pertsona guztiei.

Indar guztiak batuta PNVk Euskadiren etorkizuna gidatzen jarraitzea lortuko dugu.
Gora Euskadi askatuta!